



Paisaiaren kalitatea

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- HIZKUNTZA.

HELBURUAK

- Ingurua ezagutzea eta gizarteak berarekin eratutako elkarrekintzak identifikatzea.
- Ingurumen-arazoentzako irtenbideak proposatzeko gaitasuna garatzea.

PAISAIA OSATZEN duten elementuak asko dira. Horiek guztiak ulertu ahal izateko, sailka antolatzea komeni da: erliebea, landaredia, ura... Behaketaren bidez, paisaiaren kalitateari buruzko zeure iritzia garatu ahal izango duzu. Taula honetan, aukeratu aztertu nahi duzun paisaiaren alderdi bakoitzarekin bat datozen

ezaugarriak. Paisaiaren kalitatea kalifikatzeko, hautatutako laukietan ageri diren puntu kopuruak batu egin behar dituzu. Era berean, giza jardueren eraginarengatik inguruko ondorioak ateratzeko proposatzen dizkizuegun irizpideak aztertzeko eta baloratzea ere eskatzen dizuegu.

Paisaiaren kalitatea				Puntuak		
Erliebea	Osagai mota asko (labarrak, haranak...) dituen erliebe menditsua	3	Osagai mota gutxi dituen erliebe menditsua	2	Uniformea eta osagai nabarmenik (ordokia...) gabekoa	1
Landaredia	Bertoko basoak (haritzak, pagoak...)	4	Gizakiak landatutako landaredi-esparruak (pinuak...)	3	Landare kolonizatzaileen nagusitasuna (laharrak, ote zuriak...); oihaneztatu gabekoa	1
Ura	Garrantzi handiko osagaia	3	Ez da osagai nagusietakoa	2	Ez da ageri	0
Kolorea	Kolore-konbinazio ugari eta biziak	2	Nolabaiteko kolore aniztasuna eta kontrastea	1	Aniztasun urria, kolore motelak	0
Bakantasuna	Oso paisaia berezia, bakana	4	Paisaia berezia, baina Euskal Herriko beste batzuen antzekoa	3	Arrunta, Euskal Herriaren ohikoa	1
Kutsadura-maila	Txikia	4	Ertaina	0	Handia	-4
Komunikazio-bideak	Ez dira inon ageri	4	Ingurumen-inpaktu urriko bideak ageri dira (bide txikiak, bidezidorrak...)	2	Komunikazio-bide ugari eta mota askotakoak	-4
Biztanleguneak	Ez dago horrelakorik, edo paisaian integraturiko elementuak (etxeak...) ageri dira	4	Argi bereizten diren eta urbanizazio zehatza duten herriak	2	Masifikazio-maila handia, herrien arteko muga zehatzik gabekoa	-4

Kalitatea: **HANDIA** = 28 - 15; **ERTAINA** = 15 - 3; **TXIKIA** < 3

Egin aztertu duzun paisaiari dagozkion puntuen batura. Horren arabera, zein da aztertutako paisaiaren kalitatea?

- Zer deritzezu taulan proposatutako irizpideei? Irizpide horietan, zelako pisua dute giza jardueren ondorioek?
- Zer egin daiteke ondorio horiek leuntzeko edo beste era batera bideratzeko?